

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

1 MAILA

Azterketa idatzia

A EREDUA

Deiturak: _____

Izena: _____ NA: _____

Azterketa idatziak bi zati izango ditu

- Entzumena
- Irakurmena eta idazmena

Azterketa idatzia etenik gabe egingo da. Entzumenarekin hasi eta beste bi ariketak, irakurmena eta idazmena, ondoren.

Entzumena amaitu ondoren **ordubete eta 35 minutu** izango dituzu irakurmenaren eta idazmenaren zatiak egiteko.

	ARIKETA	Puntuazioa gutxienez	Puntuazioa gehienez	Proposaturiko denbora
Azterketa idatzia	Irakurmena	---	20 puntu	35 min. inguru
	Idazmena	15	30 puntu	60 min. inguru
	Irakurmena eta idazmena	---	50 puntu	1h 35min.
	Entzumena	---	20 puntu	

Azterketa deialdia: **2006ko maiatza**



Eusko Jaurtitzako Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HADE

ENTZUMENA

1. TESTUA

Ondoren, Euskadi Irratian itsasoko egoeraren informazioa entzungo duzu.

Entzun kazetariaren informazioa eta aukeratu erantzun zuzena.

Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzena.

Aukeratu erantzun zuzena:

Adibidea:

0. *Itsasbehera gaur*

- a. *goizeko bederatziak eta laurdenetan izan da.*
- b. *goizeko hamar eta erdietan izan da*
- c. *goizeko hamaika eta erdietan izango da.*

1. *Itsasgora gaur...*

- a. *gaueko hamar eta erdietan izango da.*
- b. *eguerdiko hamabietan izango da.*
- c. *arratsaldeko bostetan izango da.*

2. *Uraren batz besteko tenperatura...*

- a. *ez da hogeit edo hogeita bat gradutara iritsiko.*
- b. *hogeit eta hogeita bat gradu bitartekoa izango da.*
- c. *hogeit eta hogeita hamar gradu bitartekoa izango da.*

3. *Itsasoan haizeak...*

- a. *iparretik joko du eta itsaso kizkurra eragingo du.*
- b. *ekialdetik joko du, eta itsaso barea izango da.*
- c. *hegoaldetik joko du, eta itsaskia izango da.*

4. *Itsasoan olatuen neurria...*

- a. *ez da metrora iritsiko.*
- b. *metro eta erdikoa izango da.*
- c. *bi metro eta erdira iritsiko da.*

5. *Eguraldi hau izango dugu gaur:...*

- a. *goiza eguzkitsua izango da eta arratsaldea ere bai.*
- b. *goizean zerua estalita egongo da, baina gauerako euria espero da.*
- c. *goizean laino batzuk ikusiko dira, baina pixkanaka argituko du.*

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

0- b	1	2	3	4	5
-------------	---	---	---	---	---

HADE

ENTZUMENA

2. TESTUA

Ondoren, Euskadi Irratian Tarragonan gertatutako albiste bitxia entzungo duzu.

Entzun kazetariaren informazioa eta aukeratu erantzun zuzena.

Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzena.

Aukeratu erantzun zuzena:

Adibidea:

0. *Joan den astean, Kataluniakoa Mossos d'Esquadra*ko polizia

- a. *alkoholemia tasa igotzeko eskatu zuten.*
- b. *alkoholemia tasarik altuena aurkitu zuten.*
- c. *alkoholemia kontrol gehiago jarri zituzten.*

1. Tarragonako Bonavista auzoan gizon bat ikusi zuten...

- a. zaldi baten gainean, zaldia gidatu ezinik.
- b. zaldi gainean lasai-lasai errepide erditik.
- c. mando baten gainean bide erdian geldirik.

2. Udaltzainek zaldiaren agiriak eskatu zituzten gizonari,...

- a. eta gizonak eman egin zituzten.
- b. eta gizona etxera joan zen agiriaren bila.
- c. baina gizonak ez zuen agirik.

3. Ondoren,...

- a. zaldiari zepoa jarri zioten.
- b. zaldia ukuilu batera eraman zuten.
- c. zaldia udaletxera eraman zuten.

4. Zaldunari alkoholemia kontrola egin zioten, eta...

- a. ez zuen positiborik eman egin zioten kontrolean
- b. onartzen dena baino bi aldiz gehiago eman zuen.
- c. onartzen dena baino lau aldiz gehiago eman zuen.

5. Gizonak ez zuen trafikoaren legea bete,...

- a. agirik ez zeramalako eta zaldia ez zelako berea.
- b. ez zegoelako zaldia gidatzeko egoera onean.
- c. animaliak gidatzeko ere agiri bereziak behar direlako.

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

0- b	1	2	3	4	5
-------------	---	---	---	---	---

HADE

IRAKURMENA ETA IDAZMENA

IRAKURMENA

1. TESTUA

Aizu aldizkariko albiste bat irakurriko duzu.

1. egitekoa

Testuaren informazioaz baliatuta, erantzun **egia** ala **gezurra** den, eta laukian **X** letra idatzi, adibidean egiten den bezala.

NAPOLEONEN HERIOTZAZ



artsenikoa topatu zen) azalpen hauek eman dituzte: antza denez, Napoleonek oso gustuko zuen ardoa, eta garai hartako ardogileek artsenikoarekin garbitzen zituzten upelak.

Napoleonen heriotzaren arrazoia misterio bat da. Hainbat teoria garatu dituzte zientzialariek, esaterako, artsenikoarekin pozoitu zutela, edota botika gehiegi hartzeagatik hil zela. Zuricheko (Suitza) Unibertsitateko zientzialari batzuek, ordea, beste teoria bat aurkeztu dute. Napoleonek bere azken sei urteetan erabilitako prakak aztertu ondoren, eta guztira 12 praka aztertu zituzten, handienek 110 zentimetro zituztela ikusi zuten, eta hil aurretik erabilitakoek, ordea, 98 zentimetro. Napoleonek pisu asko galdu zuen denbora gutxian, minbizia duten gaixoen antzera (sei hilabetetan 15 kilo galdu zituen). Ikerlarien ustez, horrek frogatzen du Napoleon urdaileko minbiziak jota hil zela. Bestalde, artsenikoaren teoriari buruz (Napoleonen ileetan

Aizu!, 2005eko ekaina

HADE

1. Egitekoa:

Erantzun **egia** ala **gezurra** den.

Adibidea:

Egia **Gezurra**

0. *Zientzialariek hainbat teoria garatu dituzte Napoleonen heriotza azaltzeko.*

X	
---	--

1. Suitzako zientzialarien ustez, Napoleon hil aurretik epe laburrean asko argaldu zen, minbiziak jota zegoelako.

--	--

2. Napoleoni artsenikoa aurkitu zioten sabelean, eta horrek azaltzen du bere heriotza.

--	--

3. Napoleon gibelego minbiziak jota hil zen, besteak beste, ardoa oso gustukoa zuelako.

--	--

2. TESTUA

Tarazonan ingelesa ikasteko uda ikastaro baten informazioa irakurriko duzu.

1. egitekoa

Testuak ematen dizun informazioarekin taula osatu. Informazioa **zuzena bada, idatzi ✓ zeinua** dagokion laukian, adibidean egiten den bezala.

TARAZONA (8-14 urte)

Erref.	Egunak	Prezioa
4.845	ekainak 25 – uztailak 14	1.020 €
4.846	abuztuak 01 – 14	730 €

Hiria

Zaragozako probintzian kokatua dago. "Hiri mudejarra" goitizenez da ezaguna. Herri txikia eta lasaia, hirigune historiko garrantzitsua du eta, Moncayo mendiaren inguruan egonik, klima lehor baina atsegina eskaintzen duen herrixka da Tarazona.

Ikastetxea

Ikastaroa, txangoak izan ezik, Elizbarrutiko Apaiztegiaren ikastetxean egingo da, Tarazona herriaren kanpo-aldean. Eraikin eta kirol-instalazio bikainez hornitutako eraikuntza da (frontoiak, kirol-zelaiak, igerilekua), eta hainbat jarduera garatzeko (ikastaro, jaialdi...) areto ugari ere badu.

Ikastaroak 25 eskola-ordu ditu astero, ondo trebatutako jatorrizko eta bertako irakasleen ardurapean. Eskola-materiala ere prezioan sartzen da.

Partaideak adinaren eta ingeles mailaren arabera, talde homogeneoetan, taldekatuko dira.

Ikastaroa amaitutakoan, asistentzia diploma bat banatuko da, baita ikasleak egindako prozesuaren berri ematen duen agiria ere.

Ostatua

Pentsio osokoa izango da (askaria barne). Seminarioan bertan egingo du lo ikasleak. Gela bakoitzak bere bainugela dauka. Irakasleen eta begiraleen taldea ere eskolan biziko da. Arroparen garbiketa prezioaren barruan sartuta dago.

Jarduerak

Kirolak: tenisa, frontenisa, futbola, igeriketa, etab.

Esku-lanak: artisautza, pintura, maskarak, etab.

Gizarte-jarduerak: lehiaketak, jaialdiak, dantzaldiak eta diskotekak.

Txangoak: Tarazona hiria ikusi, eta egun osoko 2 txango (txango bat 2. asteko txandan).

Prezioan sartzen dira

- Azaldutako programa.
- Eskola-materiala eta bestelako jardueretakoa.
- Irakasle eta begiraleen etengabeko zaintza eta ardura.
- Donostiatik bidaia autobusean.
- Asistentzia aseguruua.

%5eko beherapena
Aurrezki-Plan Gaztearen
titularrak diren partaideentzat

Izen-ematea Kutxako bulegoetan eta Telekutxan

Antolakuntza teknikoa: Gantour Bidaiak eta STEP

HADE

1. Egitekoa:

Aurkitu informazio **zuzenak**, eta ✓ zeinua idatzi beheko laukietan, adibidean egiten den bezala. Zuzenak ez direnak **hutsik** utzi.

Adibidea: <i>Kirolak eta bestelako jarduerak egiteko aukera dago</i> ✓	Ikastetxea hiriaren erdigunean dago	Irakasle guztiak jatorriz ingelesak dira	Liburuak aurrez ordainduta daude
Ikastaro amaieran agiriak banatuko dira	Ikastetxean bertan egingo dute lo ikasleek	Geletan bertan ez dago bainugelarik	Asegurua eta autobuseko bidaia (joatekoa) prezioan sartuta dago



Tarazona herriaren ikuspegia

3. TESTUA

Donostian bizi den Ka Ming txinatarrari *Berrian* egindako erreportajea irakurriko duzu.

1. egitekoa

Testuaren informazioaz baliatuta, aukeratu ondorengo galderen erantzun zuzena. Erantzunaren **letra** beheko **laukietan idatzi**.



Ka Ming Tung

“DENA DUT DONOSTIARRA, AURPEGIA IZAN EZIK”

Tung sendia urrutitik etorri zen Donostiara, duela 28 urte, Txinatik. Aita-amak eta semea. Pekin jarri zioten izena ireki zuten jatetxeari, nahiz eta Hong Kong izan euren sorlekua. Bi urteko mutikotxoa zen orduan Ka Ming, eta alde batetik bestera ibiltzen zen jatetxean korrika. Kanean gehienek harriduraz begiratzen zioten: “Sei-zazpi urte nituenean, hemengo ume txinatar bakarra nintzen. Jendeak ez zuen txinatarrik inoiz ikusi; telebistan, asko jota. Ezberdina nintzen haientzat. Baina ez naiz kezkatzen jendeak oso ondo tratatu nau hemen beti”.

Orain ere jatetxean izaten da Ka Ming, asteko sei egunetan. Soseguz hitz egiten du, irribarrea beti ahoan. “Hemen esaten den bezala, txinatarrak bezala egiten dugu lan!”, esaten digu Ka Ming-ek. Txikitatik lan eta lan jardun du, etxeke negozioan eta orain berak darama jatetxearen ardura. Aitaren aholkuak aintzat hartuz, betiere, Siu Hung asteko zazpi egunetan egoten baita han, atsedetik hartu gabe. “Esaten diot aitari ezin dela lan egiteko bizi, baina ez dit jaramonik egiten!”.

Aita-semeen pentsatzeko moduak ez datoz bat beti. Ekialdea eta mendebaldea dira. Aitaren bihotza Hong Kong-en dago; semearena berriz, hemen. “Realeko bazkide naiz, eta aurpegia ez, beste dena dut

donostiarra. Nire lagunak hemengoak dira, eta parte zaharrea ibiltzen gara. Hemengo neska-laguna ere izan nuen, garai batean”. Gaztelania garbian mintzo da Ka Ming. Are gehiago, apenas daki txineraz. Nola liteke, baina? “Damutzen naiz ez ikasi izanaz, baina txikitatik gaztelaniaz hitz egin dut etxean, eta gero kosta egiten da aldatzea. Euskararekin bezala da, ez baduzu erabiltzen, ez duzu ikasten”. Gurasoek bai, haiek txineraz jarduten dute elkarrekin; oraindik orain, arrotza zaie gaztelania. Eta zer esanik ez euskara.

Ka Ming-ek badaki euskara apur bat: “Selektibitatean gaintu nuen, baina ahazten joan zait nekiena. Dezente nekien jatetxera etortzen zirenek euskaraz eskatzen bazizkidaten gauzak, arazorik ez nuen izaten, baina orain...”. Lagunekin ere gaztelaniaz hitz egiten du. Txinara joaten denean, berriz, ingelesez moldatzen da. “Ikastetxe Ingelesean ikasi nuen. Aitak ingelesez zekien eta nik ere ikas nezan nahi zuen. Gero, Enpresaritzan egin nuen, eta orain praktikan jartzen ari naiz han ikasitakoa, jatetxean”. Pekin parte zaharrea dago, eta Donostiako lehen jatetxe txinatarrak da. “Gipuzkoakoa ere bai, nik uste”, esan digu Ka Ming-ek.

Berria
Tartea, 2004ko apirilaren 20a

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

1. Egitekoa:

Adibidea:

0. Tung familia

- a. *Pekindik etorri zen Donostiara, Ka Ming jaioberria zela.*
- b. *Hong Kong-etik etorri zen Donostiara, Ka Ming haurra zela.*
- c. *aspaldi etorri zen Donostiara, Ka Ming-en gurasoak ezkondu aurretik.*

1. Ka Ming-i, txikitan, jendeak harrituta begiratzen zion,...

- a. *telebista saio batean azaldu zelako.*
- b. *beti bihurrikeriaren bat egiten zuelako.*
- c. *haur txinatar gutxi zegoelako orduan.*

2. Gaur egun Pekin jatetxea...

- a. *semearen esku dago, aitak lasai bizi nahi duelako.*
- b. *semearen esku dago, baina aitak gogor egiten du lan.*
- c. *aitaren esku dago eta semeak ez du bertan lanik egin nahi.*

3. Pentsatzeko eran eta sentipenetan...

- a. *semea txinatarra sentitzen da hemengoa baino gehiago.*
- b. *bai aita eta bai semea, hemengoak sentitzen dira biak.*
- c. *semea hemengoa sentitzen da, txinatarra baino gehiago.*

4. Ka Ming-ek lagunak hemengoak ditu,...

- a. *eta neska-laguna ere hemengoa izan zuen.*
- b. *eta neska-lagunarekin euskaraz egiten du.*
- c. *baina oraingo neska-laguna txinatarra du.*

5. Ka Ming-en gurasoek...

- a. *elkarren artean gazteleraz egiten dute, baina semearekin txineraz.*
- b. *txineraz egiten dute elkarren artean, baina semearekin ez.*
- c. *elkarren artean ingelesez egiten dute, baina semearekin gazteleraz.*

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

0-b	1	2	3	4	5
-----	---	---	---	---	---

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

IDAZMENA

Oharrak:

- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Gogoratu gutxieneko hitz kopurua bete behar duzula (**140 hitz**).
- Idazteko boligrafoa erabili.
- Zure idazlana zuzentzean kontuan hartuko da nola erantzun diozun eskatutako egitekoari eta baita ere erabili duzun hizkuntzaren zuzentasuna eta aberastasuna.

Zirriborroetarako orria
(orri hau ez da zuzenduko)



HADE


Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

IDAZMENA

Egitekoa:

Gutuna idatzi aspaldiko lagun bati.

Ondorengo mezua jaso duzu zure ordenadorean. Txikitan zurekin ikasi zuen lagun batek idatzi dizu. Irakurri eskaera eta erantzun bere mezuari.
Gutxienez, **140 hitz** idatzi beharko dizkiozu.



bidaltzailea: Zure aspaldiko laguna

Helbidea: **F_aspaldiko laguna@aol.com**

Aspaldiko lagun zaharra!!!

Kaixo, aspaldiko!

Ez dakit nitaz oroituko zaren. Aurkitu nauzu argazkian? Eskolan elkarrekin ikasi genuen. Ikasle talde bat elkartu gara, eta web orri bat egin dugu.

Gure taldean parte hartzeko bi gauza egin behar dituzu:

1. Zure oraingo *argazki bat* bidali.
2. Zure gauzak kontatu!!! Non bizi zara? Zer egiten duzu? Lanik baduzu?... **Den dena jakin nahi dugu.**
3. Eta beste gauza bat, eskola garaiko **anekdota edo pasadizoren bat** kontatu behar diguzu zure mezuan. Istorio guztiak jaso eta onenak sari bat izango du. Web orrian jarriko ditugu eta boto gehien biltzen dituen anekdotak irabaziko du saria: Parisera bidaiari zoragarri bat!!!!

Beraz, ez galdu minutu bakar bat eta idatzi gure helbidera: **F_aspaldiko laguna@aol.com**

Laster arte!!!!

Vitoria-Gasteiz kalea 3
20018 DONOSTIA

Tel.: 943 022 600

Fax: 943 022 601

www.hade.org



Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LEHEN MAILAKO AZTERKETA

ZATIAK ETA PUNTUAZIOA

LEHEN MAILAKO AZTERKETAREN ZATIAK ETA PUNTUAZIOA:

Proba idatzia %50	Irakurmena	%20		20 puntu	45 min. inguru
	Idazmena	%30	gutxienez 15	30 puntu	60 min.
Ahozko proba %50	Entzumena	%20		20 puntu	25 min.
	Mintzamena	%30	gutxienez 15	30 puntu	10 min.
GUZTIRA		%100	gutxienez 60	100 puntu	

Agiria eskuratzeko gutxienez 60 puntu beharko dituzu eta 30 proba bakoitzean. Proba idatzian, gutxienez, 15 puntu lortu beharko dituzu idazmenean, eta, ahozko proban, 15 puntu mintzamenean.

Agiria eskuratzeko ezinbestekoa da bi probetan (idatzian eta ahozkoan) **gai** izatea. Emaitza bakarra emango da: **GAI/ EZ GAI**.

Hauek dira idazmena zuzentzeko irizpideak:

IKUSPEGI OROKORRA. Eginkizuna betetzea, erraz ulertzea lehenbiziko irakurketan. Koherentea izatea, hari logiko bati jarraitzea.

BALIABIDE LINGUISTIKOAK (ABERASTASUNA). Lexikoaren aberastasuna. Erregistroa. Egitura aberatsak. Antolatzaileak, lokailuak, kohesio-formak. Testu-motari dagokion egitura.

ZUZENTASUNA. Mailari dagozkion egitura morfosintaktikoen erabilera. Lexikoaren erabilera. Puntuazioa. Ortografia.

Eskatu zaizun egitekoa gainditzeko ezinbestean gutxieneko bat lortu behar duzu ebaluazio irizpide bakoitzean.

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

1 MAILA

AZTERKETA IDATZIA

2006ko MAIATZA

Eredua

A

Aztertzaileentzako orriak



HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

ZUZENKETARAKO OHARRAK

Azterketa bakoitzari **idatziaren ebaluazio-fitxa** edo emaitzen fitxa bat dagokio. Azterketaren puntuazioa neurketa fitxa horretan idatzi behar da. Azterketariaren ikaslearen datuak fitxan idatzita izango ditu aztertzaileak eta azterketaren barruan jasoko du fitxa hori. Azterketaren batean fitxa falta bada, badaezpadako fitxa hutsak ere izango ditu, datuak eskuz bete eta puntuazioak bertan jartzeko.

Hiru trebetasunen emaitzak idatziko dira neurketa fitxan:

ENTZUMENA	gehienez, 20 puntu
IRAKURMENA	gehienez, 20 puntu
IDAZMENA	gehienez, 30 puntu (gutxienez, 15 puntu gainditzeko)

Emaitzen orriak beteta eta azterketak zuzenduta itzuliko dira HABEra.

Azterketaren puntuazioa 1 MAILA

Entzumena

Bi entzungai dira.

1. Entzungaian bost galdera daude. Erantzun zuzen bakoitzeko azterketariari **2 puntu** emango zaizkio.
 2. Entzungaian bost galdera daude. Erantzun zuzen bakoitzeko azterketariari **2 puntu** emango zaizkio.
- Denera, **20 puntu**, gehienez.

Irakurmena

1. mailan hiru testu irakurriko dira.

Lehenengo testua

Egitekoa: erantzun zuzena aukeratu. 3 galdera dira. Erantzun zuzen bakoitzeko **puntu 1** lortuko ditu. Denera, **3 puntu**, gehienez.

Bigarren testua

Egiteko bakarra du. Informazio zuzenak aurkitu. 7 adierazpen dira. Erantzun zuzen bakoitzeko **puntu 1**. Denera, **7 puntu**, gehienez.

Hirugarren testua

Egiteko bakarra du. Erantzun zuzena aukeratu. 5 galdera dira. Erantzun zuzen bakoitzeko **2 puntu**. Denera, **10 puntu**, gehienez.

Hiru testuen artean **20 puntu** lor daitezke, gehienez.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Idazmena zuzentzeko oharrak

Akatsak ikusten direnean, **ez jarri markarik testuan**. Azterketaren ertza erabili laburdurak edo zeinuak idazteko. Arkatza erabili.

Ez azpimarratu eta ez biribildu akatsa. Alboko ertzean jarri zeinua.

Zati luze eta traketsak ertzean marra bertikala jarrita seinalatu.

Ez jarri zuzenketarik edo azalpenik idazlanean, are gutxiago iritzi edo iruzkinik.

Ez ezer azpimarratu.

Idazlanaren ertzetan laburdura hauek erabil litezke akats aipagarrienentzat edo aztertzaileak asmatutakoak:

? ulergaitza, √ zerbait falta da, **dek** deklinabidea, **ad** aditza, **lex** lexikoa, **punt** puntuazioa, **sint** sintaxia, **erl** erlatibozkoa, **zg** zehar galdera, **nom** nominalizazioa, **konp** konparaziozkoa, **konpl** konpletiboa, **bal** baldintzazkoa, **ord** hitzen ordena, **kom** komunztadura, **lok** lokailua.

Kontuan izan ebaluazio irizpideak eta, irizpide bakoitza baloratu ondoren, hau da, ikuspegi orokorra, baliabide linguistikoak eta testuaren zuzentasuna, jarri azken emaitza.

Gehienez, **30** puntu. Gainditzeko, gutxienez, **15**.

Ebaluazio orrian idatzi balorazioa eta puntuazioa, ez azterketan.

Ongi arrazoitu jarritako puntuazioa, batez ere *ez gai* baldin bada.

Birzuzenketak

Aztertzaileak zalantza handiak baditu azterketa bati puntuazioa ematerakoan, hala adieraziko du eta birzuzenketa eskatuko du (ebaluazio-fitxan idatzita). Bere emaitza jarriko du, baina zalantzak dituela esango dio HABEri emaitzak eramaten dituenean. Azterketa hori birzuzenketan beste aztertzaile bati emango zaio berriz zuzentzeko.

Gainerakoan, HABEK erabakiko du birzuzenketak nola egin. Birzuzenketak aurten ekainaren lehen astean egingo dira eta aztertzaileek hartuko dute parte.

Entzumena eta irakurmena

Bi zati horien zuzenketak ongi idatzi ebaluazio orrian. Puntuak ongi batu eta **batuketa erreparatu**. Puntuazioa emateko edo erantzunen bat onartzeko zalantzarik baldin baduzu, deitu HABEra, ebaluazio atalera eta galdetu.

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

ENTZUMENA

1. Testua $5 \times 2 = 10$ puntu

A	0-	1-	2-	3-	4-	5-
EREDUA	b	c	b	a	b	c

2. Testua $5 \times 2 = 10$ puntu

A	0-	1-	2-	3-	4-	5-
EREDUA	b	a	c	b	c	b

Denera, 20 puntu gehienez.

IRAKURMENA ETA IDAZMENA

1. Testua $3 \times 1 = 3$ puntu

A	0	1	2	3
EREDUA	E	E	G	G

2. Testua $7 \times 1 = 7$ puntu

A	0	1	2	3	4	5
EREDUA	√			√	√	√

6	7
	√

3. Testua $5 \times 2 = 10$ puntu

A	0-	1-	2-	3-	4-	5-
EREDUA	b	c	b	c	a	b

Denera, 20 puntu gehienez.